

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustatzeko 08. Promoción Económica	09. Eskualde Garapena 09. Desarrollo Comarcal	433.121 Eskualde Garapena 433.121 Desarrollo Comarcal

Prozesu eraldatzailean aurrera egiteko Bizkaiko herritarren eta sare ekonomikoaren eskura dagoen tresna da Ekonomia Sustatzeko Saila. Bere xedea Bizkaia lurralde berritzaile gisa kokatzea da, hau da, talentua duen, erakargarria den eta konektatuta eta orekatuta dagoen lurralde gisa kokatzea, eta, horrez gain, bermatu nahi du etorkizuneko Bizkaia kalitatezko enplegua sortzeko eta mantentzeko gaitasun handia izatea eta Europako ekonomia eta gizarte abangoardian mantentzea. Era berean, Ekonomia Sustatzeko Saila lanean ari da Bizkaia kanpoan duen itxura sustatzeko eta Bizkaiko estrategia turistikoa diseinatu eta garatzeko.

Horretarako, Ekonomia Sustatzeko Sailak bere helburuen artean dauka, besteak beste, maila anitzeko gobernantza eredu berri bat garatzea, eskualde mailako lehiakortasuna babesteko. Hartara, Bizkaiko eskualdeen garapen orekatua eta ekonomia sustatzeko ekimen guztien beharrezko kapilaritatea bultzatu nahi ditu.

Helburu orokorren arabera, honako hauek izan dira Eskualdea Garatzeko Zerbitzuaren helburuak 2022ean:

- Eskualdea garatzeko estrategia (Bizkaia Orekan Sakonduz) diseinatu eta garatzea.
- Lehenetsuneko jardura gunetako erakunde arteko plan estrategikoak garatzea.
- Lurralde lehiakortasuneko proiektu eta ekimen bereziak bultzatzea.
- Tokiko merkataritza babestea; bereziki, profesionalizazioa, digitalizazioa eta merkataritza elektronikoaren garapena.
- Dauden enpresa artisauen lehiakortasuna eta garapena sustatzea, eta gure lurralde enpresa berriak bultzatzea.

El Departamento de Promoción Económica se configura como un instrumento al servicio de la ciudadanía y el tejido económico de Bizkaia para promover un proceso transformador con el objetivo fortalecer el posicionamiento de Bizkaia como territorio innovador, con talento, atractivo, conectado y equilibrado y garantizar que la Bizkaia de mañana tenga como seña de identidad su alta capacidad de crear y mantener empleo de calidad y que se mantenga a la vanguardia económica y social de Europa. Asimismo, el Departamento de Promoción Económica trabaja para potenciar la imagen exterior de Bizkaia y el diseño y desarrollo de la estrategia turística de Bizkaia.

Para ello, el Departamento de Promoción Económica, centra sus objetivos, entre otros, en desarrollar un nuevo modelo de gobernanza multinivel de apoyo a la competitividad a nivel comarcal que busca el desarrollo equilibrado de las comarcas de Bizkaia y la necesaria capilaridad de todas las iniciativas de promoción económica.

En base a los objetivos generales, han sido objetivos del Servicio de Desarrollo Comarcal durante 2022:

- Diseñar e implantar la estrategia de desarrollo comarcal Bizkaia Orekan Sakonduz.
- Desarrollar los planes estratégicos interinstitucionales de las zonas de actuación prioritaria.
- Impulsar proyectos e iniciativas singulares de competitividad territorial.
- Apoyar al comercio local especialmente en su profesionalización, digitalización y desarrollo del comercio electrónico.
- Impulsar la competitividad y el desarrollo de las empresas artesanas existentes, así como el fomento de nuevas empresas en nuestro territorio.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustazeko 08. Promoción Económica	09. Eskualde Garapena 09. Desarrollo Comarcal	433.121 Eskualde Garapena 433.121 Desarrollo Comarcal

Helburu horiek betetzeko, 2022an zehar honako jarduera hauek garatu dira:

Bizkaia Orekan Sakonduz (BOSz)

2020an Bizkaia Orekan Sakonduz estrategia berria definitu ondoren, estrategia hori etengabe eboluzionatzen ari den eragileen sare bizi baten bidez gauzatzen da, saio teknikoetan oinarritutako harreman-eredu baten bidez eta agentziei etengabeko laguntza emanaz. Hiru helburu estrategiko azpimarratzen dituen harreman-eredua lantzen jarraitu da:

- Bizkai osoko industria- eta zerbitzu-enpresa aurreratuen lehiakortasunean aurrera egitea.
- Tokiko garapeneko eragileen gaikuntzan eragitea, lurraldeko enpresa guztietara iristeko bidetzat erabiltza, eta ekonomia sustatzeko politikak eskualde bakoitzaren berezitasunetara egokitzea.
- Maila anitzeko gobernantza antolatzea, hainbat eragilek hainbat mailatan gauzatutako ekintzen eraginkortasunari laguntzeko.

Horrela, zonakako banaketaren aurreko eskema gainditu dugula, enpresen jokabian, ingurunearen baldintzen hobekuntzan, agentzien balio-proposamena hobetzeko zerbitzu eta tresnen diseinuan eragiten duten ekimenen garapena landu da, ekintzarako gaikuntza bultzatuz, agentziek beraiek eskatutako gaietara buruzko saioak edo Bizkaiko Foru Aldundiak proposatutakoak emanda, edo metodologia zehatzak aplikatuta (adibidez, berrikuntza-profilak, merkataritza suspertzea, nazioartekotzea eta abar).

Para la consecución de dichos objetivos se han llevado a cabo, durante 2022, las siguientes actuaciones:

Bizkaia Orekan Sakonduz (BOSz)

Tras la definición en 2020 de la nueva estrategia Bizkaia Orekan Sakonduz, ésta se materializa a través de una red viva de agentes en continua evolución articulada a través de un modelo de relación basado en sesiones técnicas y la prestación de un acompañamiento continuo a las Agencias. Se ha continuado trabajando en un modelo de relaciones que hace hincapié en 3 objetivos estratégicos:

- Avanzar en la competitividad de las empresas industriales y de servicios avanzados de todo el Territorio de Bizkaia.
- Incidir en la capacitación de los agentes de desarrollo local como vía para llegar a todas las empresas del territorio y adecuar las políticas de promoción económica a las especificidades de cada comarca
- Articular una gobernanza multinivel que contribuya a la eficiencia de acciones llevadas a cabo por distintos agentes a distintos niveles

Así, superándose el anterior esquema de la división zonal, se ha trabajado sobre el desarrollo de iniciativas que incidan en el comportamiento de las empresas, en la mejora de las condiciones del entorno, en el diseño de servicios y herramientas para mejorar la propuesta de valor de las agencias, impulsando la capacitación para la acción con sesiones sobre temáticas demandadas por las propias agencias o propuestas desde Diputación, o a través de la aplicación de metodologías concretas (ej. de los perfiles de innovación, reactivación comercial, internacionalización,...).



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustazeko 08. Promoción Económica	09. Eskualde Garapena 09. Desarrollo Comarcal	433.121 Eskualde Garapena 433.121 Desarrollo Comarcal

Estrategiaren kudeaketari berari dagokionez, 2022an kudeaketa eta jarraipena egiteko tresnak garatzeko bidean aurrera egiten jarraitu da, Aginte Taula baten bidez, strategiaren aurrerapena monitorizatzeko eta, horrela, zehaztutako helburu estrategikoen lorpen-maila eta izan dezakeen eragina gainbegiratu ahal izateko. 2022ko ekitaldi hori erreferentziatzat hartuta, funtsezko jarduera-adierazle batzuk monitorizatuko dira, BOSz strategiaren bilakaeraren ikuspegi integrala emango dutenak hurrengo urteetan.

Eskualde lehiakortasuna sustatzeko programa

Martxoaren 1eko 21/2022 Foru Dekretuaren bidez, Eskualde Lehiakortasuna sustatzeko programa onartu zen. Helburua da tokiko garapeneko agentziek ekonomia sustatzeko jarduera gehiago eta hobeak gara ditzatela, lurraldearen lehiakortasuna sustatzeko, kontuan hartuta, gainera, COVID-19aren eraginaren ondorioz sortu den egoera.

Eskualdeko 21 erakunderen 57 proiektu lagundu dira.

Eskualdeko plan estrategikoak

Eusko Legebiltzarrak, 2017ko maiatzan, Euskal Autonomia Erkidegoko 3 eskualdeetan ekonomia eta gizartea berpizteko ekintzak jartzeko eskatu zien erakundeei. Eskualde horien artean zeuden Ezkerraldea-Meatzaldea eta Enkarterriak.

2021ean, Eskualdeko Plan Estrategiko horiek egiteko prozesua amaitu zen, eta erakundeek aurrekontuak eta lidergoak zehaztu dituzte plan horien proiektu eragile bakoitzari dagokionez.

2022an, BFAk erakunde artean adostutako inbertsioekin jarraitu du.

En lo que a la propia gestión de la estrategia refiere, en 2022 se ha continuado con el avance hacia el desarrollo de herramientas para su gestión y seguimiento, mediante un Cuadro de Mando para la monitorización del avance de la estrategia y poder supervisar así, el grado de consecución de los objetivos estratégicos definidos y su potencial impacto. Tomando como referencia este ejercicio 2022, se llevará a cabo la monitorización de unos indicadores de desempeño claves, que ofrecerán una visión integral de la evolución de la estrategia BOSz en los años siguientes

Programa de impulso a la competitividad comarcal

Mediante Decreto Foral 21/ 2022, de 1 de marzo, se aprobó el programa de impulso a la Competitividad Comarcal, cuyo objeto es favorecer que las Agencias de Desarrollo Local desarrollen más y mejores actuaciones de promoción económica para impulsar la competitividad territorial, máxime en el escenario generado tras el impacto del COVID-19.

Se ha dado ayudas a 57 proyectos de 21 entidades comarcales.

Planes estratégicos Comarcales

El Parlamento Vasco, en mayo de 2017, instó a las instituciones a la puesta en marcha de acciones para la reactivación económica y social en 3 comarcas de Euskadi, siendo dos de ellas Ezkerraldea-Meatzaldea y Enkarterri.

Durante 2021 se culminó el proceso de elaboración de esos Planes Estratégicos Comarcales, definiéndose presupuestos y liderazgos por parte de las diferentes instituciones para cada proyecto tractor de los mismos.

En 2022 se ha continuado por parte de la DFB con las inversiones interinstitucionalmente acordadas.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustazeko 08. <i>Promoción Económica</i>	09. Eskualde Garapena 09. <i>Desarrollo Comarcal</i>	433.121 Eskualde Garapena 433.121 <i>Desarrollo Comarcal</i>

2022an, Aiaraldeko Berehalako Jarduera Plana ere egin da erakundeen artean, eta Bizkaian Arakaldo, Arrankudiaga, Urduña eta Orozko udalerrietan du eragina. 7 lan-ildoren inguruan egituratu da, 5 ardatz estrategikotan banatuta, arlo hauetan 8 proiektu traktore sortzeko: Industria Modernizazioa eta Industria Lurzoruak eta Eraikinak Berreskuratzea; Dibertsifikazio Ekonomikoa: Nekazaritzako Elikagaien Sektorea; Dibertsifikazio Ekonomikoa: Turismo eta Merkataritza Sektorea; Dibertsifikazio ekonomikoa: Kultura Sektorea; Enplegua eta Lanbide Heziketako Proiektuak; Gizarte Kohesioa; Hiri-berroneratzea: Auzo Kalteberak eta Ingurumena eta Mugikortasun Iraunkorra.

GISLUR

Bizkaiko jarduera ekonomikoko espazioen informazio sistema da Gislur. Hala, industrialdeak, enpresa eta merkataritza parkeak, Bizkaiko zientzia eta teknologia parkea, banakako industria guneak, bat-batekoak eta abar behatu eta aztertzen ditu, lurzoru ekonomikoaren erabilera hobetzeko, Bizkaia erakargarritasuna sustatuz, agente berriak ezarri eta finkatutako enpresa sarearen lehiakortasuna hobetze aldera.

Zuzeneko dirulaguntza izendun baten bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberak hitzarmen bat sinatu dute 2022an GISLUR Bizkaiko jarduera ekonomikoko guneen geoataria eguneratu, mantendu eta garatzeko. Hitzarmen horren bidez, hobekuntzak egin dira eskura dauden enpresen errolda eta enpresa horiei buruzko informazioa handitu ahal izateko, eta, horri esker, diagnostiko-dokumentuak egin ahal izan dira ad-hoc, non Jarduera Ekonomikoko Espazioen hobekuntza-beharrak islatuko diren, eta hurbiltzea, interesa sortzea eta ingurunean jarduteko aukerak aztertzea sustatuko da, toki-erakundeekin lankidetzan.

Durante 2022 se ha elaborado también de manera interinstitucional el Plan de Actuación Inmediata de la comarca de Aiaraldea, que en Bizkaia tiene afección en los municipios de Arakaldo, Arrankudiaga, Orduña y Orozko. Se ha articulado en torno a 7 líneas de trabajo, enmarcadas en 5 ejes estratégicos para generar 8 proyectos tractores en los ámbitos de Modernización Industrial y Recuperación de Suelos y Edificios Industriales; Diversificación Económica: Sector Agroalimentario; Diversificación económica: Sector Turístico y Comercial; Diversificación económica: Sector Cultural; Empleo y Proyectos de Formación Profesional; Cohesión Social; Regeneración urbana: Barrios vulnerables y Medio Ambiente y Movilidad Sostenible.

GISLUR

Gislur es un sistema de información de los Espacios de Actividad Económica de Bizkaia, orientado a la observación y análisis de Polígonos Industriales, Parques Empresariales y Comerciales, Parque Científico y Tecnológico de Bizkaia, Áreas industriales individuales, espontáneas, etc., que permite la optimización de usos del suelo económico, fomentando la atraktividad de Bizkaia para la implantación de nuevos agentes y la mejora competitiva del tejido empresarial instalado.

Mediante una subvención directa nominativa se ha suscrito un convenio entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Cámara de Comercio, Industria, Servicios y Navegación de Bilbao para la actualización, mantenimiento y desarrollo, durante el año 2022, del geoportal de espacios de actividad económica en Bizkaia, "GISLUR, abordando mejoras. para permitir aumentar el censo de empresas disponibles así como la información sobre las mismas, y permitiendo la elaboración ad-hoc de documentos de diagnóstico donde reflejar necesidades de mejora de los Espacios de Actividad Económica, fomentando el acercamiento, la generación de interés y el análisis de las posibilidades de actuación en el entorno en colaboración con entidades locales



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustazeko 08. Promoción Económica	09. Eskualde Garapena 09. Desarrollo Comarcal	433.121 Eskualde Garapena 433.121 Desarrollo Comarcal

Industrialdeen programa

Apirilaren 26ko 56/2022 Foru Dekretuaren bidez, Industrialdeen Programa onartu zen, 2 arlo baliatuta:

1. arloa: Industrialdeen kudeaketa eta hobekuntza planak egiteko eta elkartegintza sustatzeko diru-laguntzak. Norgehiagoka libreko araubidean emandako diru-laguntzak dira. 9 eskari aurkeztu dira, eta 2 onetsi dira.

2. arloa: Industrialdeko jarduera eta hobekuntza planean aurreikusitako modernizazio eta egokitzapenerako inbertsioen diru-laguntza, norgehiagoka araubidean. 6 eskabide aurkeztu dira eta guztiak babestu dira.

Orkestra. Lehiakortasunerako Euskal Institutua

Orkestrak parte hartzen du BOSz-en erabakiak hartzen laguntzeko ezagutza aditua emanez, eta esparru horretan, Bizkaiko lehiakortasunaren diagnostiko osoa definitzen da eta eskualdeko lehiakortasun-diagnostikoak garatzen dira, Bizkaiko eskualdeei buruzko datuen konparazio-azterketak eginez, eskualde bakoitzaren lehiakortasun-egoeraren inguruko ondorioak ateratzeko.

Orkestrak BOSz ekimenari egindako ekarpena Bizkaiko eta eskualdeetako ongizatearen zerbitzura dagoen lurralde-lehiakortasunaren behatoki bat garatzen jarraitzean oinarritu da, errealitate desberdinak ezagutzen eta erabakiak hartzen laguntzeko.

Eskualdeko garapenaren esparruko beste jarduera batzuk

Busturialdeko Bermeo Tuna World Capital erakunde arteko proiektua babestea

Gaur egun, atunaren sektoreak jarduera ekonomiko handia biltzen du Bizkaian eta mundu osoan. Hala, milaka enplegu zuzen eta zeharkako sortzen dituen sektorea da.

Programa de polígonos industriales

Mediante Decreto Foral 56/2022, de 26 de abril, se aprobó el Programa de Polígonos industriales con 2 Áreas:

Área 1: Subvenciones para el fomento del asociacionismo y la elaboración de planes de gestión y mejora de polígonos industriales. Se trata de subvenciones concedidas en régimen de libre competencia. Se han presentado 9 solicitudes de las que 2 han sido estimadas.

Área 2: Subvención de las inversiones para la modernización y adecuación previstas en el plan de actuación y mejora del polígono industrial, en régimen de competencia competitiva. Se han presentado 6 solicitudes y todas han sido apoyadas.

Orkestra. Instituto vasco de competitividad

Orkestra participa aportando conocimiento experto como apoyo a la toma de decisiones en BOSz y en ese marco se define un diagnóstico completo de competitividad de Bizkaia y se desarrollan diagnósticos comarcales de competitividad, realizándose análisis comparativos de los datos para las comarcas de Bizkaia para extraer conclusiones sobre la situación competitiva de cada una de ellas.

La contribución de Orkestra a la iniciativa BOSz se ha centrado en continuar desarrollando un observatorio de competitividad territorial al servicio del bienestar de Bizkaia y sus comarcas de forma que contribuya al conocimiento de las diferentes realidades y apoye a la toma de decisiones.

Otras actuaciones en el marco del Desarrollo Comarcal

Apoyo al Proyecto interinstitucional Bermeo Tuna World Capital de Busturialdea

Actualmente el sector atunero concentra una alta actividad económica en Bizkaia y en el mundo entero generando miles de empleos directos e indirectos.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustazeko 08. Promoción Económica	09. Eskualde Garapena 09. Desarrollo Comarcal	433.121 Eskualde Garapena 433.121 Desarrollo Comarcal

Bermeo Tuna Word Capital proiektuarekin, zientzia eta arrantzaren, ezagutza, prestakuntza eta berrikuntzaren eta ondare historikoaren errekupeazio eta hedapenaren arteko lankidetzak sustatu nahi da. Bermeoko ekonomia eta gizartearen garapena eta Bizkaiko enpresa atunetari-izozkailu, kontserbagile eta osagarrien garapena sustatzea da ekimen honen helburua. Horretarako, atunaren sektorea finkatzen du aberastasuna sortzen duen funtsezko eragile gisa.

EHUko Kultura Paisaien eta Ondarearen UNESCO Katedra Bilboko itsasadarreko paisaia mineral-industrialari buruz aztertzen laguntzea. Bizitzeko ondarea.

Ezkerraldea, Meatzaldea eta Enkarterri biltzen dituen eremuko ondare mineral-industrialaren balioztatuko duen eredu bat sortzeko oinarri metodologikoak oinarritzeko laguntza zientifiko eta teknikoak ematea da lana. Eredu hori Bilboko itsasadarrean oinarritzen da, sinergia metropolitarrak sortzeko gai den elementu estruktural eta erakargarri gisa.

Azken helburua Plan Zuzentzaile bat sortzea da, eremu horren garapen ekonomikoa bultzatuko duen matrize gisa balioko duena.

Merkataritza babestea

Ekonomia Sustatzeko Sailak, tokiko merkataritzak enplegua sortzeko eta ekonomia sarea indartzeko duen garrantziaz jakitun, bere lehiakortasuna hobetzeko eta kontsumoa dinamizatzeko jarduerak garatu ditu, are gehiago kontuan hartuta COVID-19aren zioz daukagun testuingurua.

Hala, 2022. urtean zehar, CECOBiko, Bilbaodendak-eko eta Bizkaidendak-eko merkataritza elkarteekin elkarriketa egonkor eta sistematikoa edukitzen jarraitu da, bakoitzaren lankidetzak hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

Con el proyecto Bermeo Tuna Word Capital, se quiere fomentar la colaboración entre la ciencia y la pesca, el conocimiento, la formación y la innovación, la recuperación y difusión del patrimonio histórico. Se trata de una iniciativa encaminada a impulsar el desarrollo económico y social de Bermeo y de las empresas atunero-congeladoras, conserveras y empresas auxiliares de Bizkaia consolidando el sector del atún como tractor fundamental para generar riqueza.

Apoyo al estudio de la Cátedra UNESCO de Paisajes Culturales y Patrimonio de la UPV sobre Paisaje minero-industrial de la ría de Bilbao. Un patrimonio para vivirlo.

El trabajo consiste en dar apoyo científico y técnico para fundamentar las bases metodológicas para generar un modelo que valore el patrimonio minero-industrial del ámbito que aglutina Ezkerraldea, Meatzaldea y Enkarterri; apoyado en la Ría de Bilbao como elemento estructural y de atracción capaz de generar una sinergia metropolitana.

El objetivo final es generar un Plan Director que sirva como matriz que impulse el desarrollo económico de esa zona.

Apoyo al comercio

El Departamento de Promoción Económica, consciente de la importancia del comercio local en el tejido económico y en la generación de empleo, ha impulsado actuaciones dirigidas a mejorar su competitividad y a dinamizar el consumo, máxime en un contexto como el producido tras la COVID19.

Así durante el año 2022, se ha seguido realizando un diálogo estable y sistemático con las asociaciones de comercio de CECOB, Bilbaodendak y Bizkaidendak plasmadas en sendos convenios de colaboración



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustazeko 08. Promoción Económica	09. Eskualde Garapena 09. Desarrollo Comarcal	433.121 Eskualde Garapena 433.121 Desarrollo Comarcal

CECOBI

Cecobi-Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa gremioko eta guneko elkarteek eta taldeek osatzen dute, Bizkaiko handizkako eta txikizkako merkataritzetako enpresaburuen interesak defendatzeko.

Sinatutako hitzarmenaren esparruan, ekintza hauek jaso dira:

- Hainbat arlotan, hala nola marketin digitalean, sare sozialetan, bezeroentzako arretan eta merkataritza-kudeaketan, gaitasuna eskuratzeko tailerrak antolatzea.
- Estrategia digitalaren banakako diagnostikoak egitea, baita premien araberako tresnak garatzea ere.
- Sektorea monitorizatzeko zerbitzua ematen jarraitzea, komunikazio-kanal ireki eta zuzena sortuz, sektorearen bilakaeraren arabera erabakiak hartzea ahalbidetuko duen informazio fidagarria izateko.
- Aholkularitza ematen jarraitzea lagatzailearen eta ekintzailearen arteko enpresaren eskualdatze-prozesuan, bai eta enpresa saneatzeko aukera ere, Bizkaiko enpresa- eta merkataritza-sareari eusteko helburuz.
- Krisi ekonomikoak larriki eragindako eskualdeetako sektorearen berezko ezaugarriak dinamizatzeko eta balioesteko ekintzak.
- Ekintzaileentzako zerbitzua, non laguntza eskaintzen zaien merkataritza berritzaileko enpresa-tipologia berrira egokitutako negozio-planetan.

Bizkaidendak

Diru-laguntza izendun baten bidez, Bizkaidendak - Bizkaiko Merkataritza, Ostalari eta Zerbitzu Enpresen

CECOBI

La Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia (CECOBI) integra asociaciones y agrupaciones gremiales y zonales para la defensa de los intereses de empresarias y empresarios del comercio mayorista y minorista de Bizkaia.

En el marco del convenio suscrito, se han contemplado acciones tales como:

- Organizar talleres orientados a la adquisición de competencias en ámbitos como el marketing digital, las redes sociales, la atención a la clientela, gestión comercial....
- Realizar diagnósticos individualizados de la estrategia digital, así como la implementación de herramientas según necesidades.
- Continuar con el servicio de monitorización sectorial, generando un canal de comunicación abierto y directo para disponer de información fiable que permita adoptar decisiones en función de la evolución del sector.
- Continuar prestando asesoramiento en el proceso de transmisión empresarial entre cedente y persona emprendedora, así como la posibilidad de saneamiento de la empresa con el objetivo de mantener el tejido empresarial y comercial de Bizkaia.
- Acciones destinadas a dinamizar y poner en valor las características propias del sector en diferentes comarcas, especialmente afectadas por la crisis económica.
- Servicio dirigido a personas emprendedoras donde se les ofrece ayuda en los planes de negocio adaptados a la nueva tipología empresarial de comercio innovador.

Bizkaidendak

Mediante una subvención nominativa se ha apoyado a Bizkaidendak, Federación de Asociaciones de



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustazeko 08. <i>Promoción Económica</i>	09. Eskualde Garapena 09. <i>Desarrollo Comarcal</i>	433.121 Eskualde Garapena 433.121 <i>Desarrollo Comarcal</i>

Elkarteen Federazioa babestu da. Hala, aholkularitza kabinete integralaren proiektua finantzatu da, helburu bikoitza lortze aldera: merkataritza enpresen kudeaketan hobekuntzak sustatzea, laguntza programak eskuratzeko prozesua hobetzea eta langileen egoera hobetzea.

Zerbitzu honekin, gainera, enpresen arteko lankidetzak sustatu da, eta koordinazio hobea bultzatuko eragile publiko eta pribatuaren artean, merkataritza sinergikoki integratu dadin hiri ekonomiako gainerako jarduerekin (hirugarren sektorea, aisialdia, kultura, turismoa eta ostalaritza, besteak beste).

Halaber, 2022. urtean merkataritzaren sektorerako prestakuntza babestu da. Horretarako, sektoreko profesionalak COVID-19aren krisiaren ondoriozko egoerara eta merkataritza estrategia berrietara egokitzeko erraztasunak jarri dira, batez ere saltokien beharrezkoak ezartzeko eta sektorearen digitalizazioa sustatzeko.

Bilbaodendak

Dirulaguntza izendun baten bidez, Bilbaodendak ere lagundu da, eta, esparru horretan, GERTU aplikazioa hedatzeko lan egin dugu, tokiko merkataritzaren eskaintzak eta sustapenak erabiliz, establezimenduetan salerosketa gehiago sortzeko eta merkataritza-eskaintzaren ikusgarritasuna hobetzeko.

Era berean, ecommerce plataformen arteko sinergiak bilatzeko lan egin dugu, Bilboko eta Bizkaiko gainerako udalerrietako saltokietarako prestakuntza- eta aholkularitza-zerbitzu pertsonalizatuaren bidez, horiek digitalizatzeko eta lineako salmentan hasteko.

Erosle gazteenen eskari eta interesei buruz ikertu da, kontsumitzaile berrien ezaugarriez jakiteko, kontsumo-ohiturei dagokienez, eta belaunaldi berriak tokiko merkataritzarekin lotzen dituzten konponbideak bilatzeko.

Comerciantes, Hosteleros y Empresas de Servicios de Bizkaia, la financiación del proyecto de gabinete integral de asesoramiento, con el triple objetivo de impulsar la mejora en la gestión de las empresas comerciales, mejorar el acceso a los programas de ayuda y mejorar la situación de su personal.

Con este servicio se ha contribuido, así mismo, a promover la colaboración entre empresas, la mayor coordinación entre operadores públicos y privados para la integración sinérgica del comercio con el resto de actividades terciarias-lúdicas, culturales, turísticas, hosteleras, entre otras, de la economía urbana.

También se ha apoyado formación para el sector comercial durante el año 2022, facilitando la adaptación de profesionales del sector a las innovaciones surgidas de las nuevas estrategias comerciales y la situación derivada de la crisis del COVID19, especialmente con miras a cubrir las necesidades específicas de los comercios y fomentar la digitalización del sector.

Bilbaodendak

Mediante una subvención nominativa, se ha apoyado también a Bilbaodendak y en ese ámbito, se ha trabajado en el despliegue de la aplicación GERTU con ofertas y promociones del comercio local para generar más tráfico a los establecimientos, mejorando la visibilidad de la oferta comercial.

Se ha trabajado igualmente en la búsqueda de sinergias entre plataformas de ecommerce, con servicios de formación y asesoramiento personalizado a los comercios de Bilbao y del resto de municipios de Bizkaia para su digitalización e incorporación a la venta on line.

Se ha investigado sobre las demandas e intereses del público más joven, para llegar a dibujar el perfil de las nuevas personas consumidoras en cuanto a hábitos de consumo y buscar soluciones que conecten a las nuevas generaciones con el comercio local.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustazeko 08. Promoción Económica	09. Eskualde Garapena 09. Desarrollo Comarcal	433.121 Eskualde Garapena 433.121 Desarrollo Comarcal

Era berean, sektorea profesionalizatzeko prestakuntza-programan lan egin da, merkataritza-sektore profesionalizatu eta lehiakorra garatzen laguntzeko.

Merkataritza bonoak (EuskadiBonoDenda)

Europako egungo gerra-egoerak ondorio ekonomiko larriak ekarri ditu berekin, hala nola erregaiei eta lehengaien garestitzea, eta aurreikusten da horiek denboran iraungo dutela. Horren guztiaren ondorioz, ondasunen prezioak gora egin du, eta, ondorioz, kontsumoak behera egin du.

Egoera horren ondorioz, ekonomiaren eta, bereziki, merkataritza-sektorearen eskaria eta eskaintza nahastu egin dira, eta horrek eragina izan du enpresen salmentetan eta jardueran, likidezia-tentsioak sortuz, eta horrek kaudimen-arazoak eta enplegu-galera eragin ditzake, egonkortzeko premia neurriak hartu ezean.

Horregatik guztiagatik, Bizkaiko Foru Aldundiak Eusko Jaurkitza, Arabako Foru Aldundia, Gasteizko Udala eta Euskadiko Udalen Elkartearekin (EUEDEL) protokolo orokor bat sinatu zuen. Horren bidez, "EuskadiBonoDenda 2022" sustapen- eta estimuluz sistema garatu zuten, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-establezimenduen zein herritarren eskura jarritako bonuen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremu osoan ondasunak eta produktuak kontsumitzeko.

Bizkaia kasuan, artisautza ere sartu zen kanpainaren sektore onuradun gisa.

BBK Fundazioarekiko lankidetzak tokiko merkataritzaren digitalizazioa bultzatzeko

2020ko irailean, jarduera protokolo orokorra sinatu zen Bizkaiko Foru Aldundiaren eta BBK Fundazioaren artean, Bizkaiko tokiko merkataritza babesteko, ahaleginak eta baliabideak koordinatuz, merkataritza babesteko aurreikusitako helburuen

Igualmente se ha trabajado en programa de formación para la profesionalización del sector, con el fin de favorecer el desarrollo de un sector comercial profesionalizado y competitivo.

Bonos de Comercio (EuskadiBonoDenda)

La actual situación bélica en Europa ha traído consigo graves consecuencias económicas, tales como el encarecimiento de los combustibles y materias primas, que se prevé serán duraderas en el tiempo. Todo ello ha generado el incremento del precio de bienes, con el consiguiente descenso del consumo.

Estas circunstancias se han traducido en una perturbación conjunta de demanda y oferta para la economía y el sector comercial en particular, que ha afectado a las ventas y actividad de las empresas, generando tensiones de liquidez que podrían derivar en problemas de solvencia y pérdida de empleos si no se adoptan medidas urgentes de estabilización.

Por todo ello, la Diputación Foral de Bizkaia participó en la elaboración de un protocolo general a suscribir con Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Álava, Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y la Asociación de Municipios Vascos, EUEDEL, para desarrollar un sistema de incentivo y estímulo mediante bonos puestos a disposición de los diferentes establecimientos comerciales radicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco y al alcance de la ciudadanía con la finalidad de consumir bienes y productos en todo el ámbito territorial del País Vasco, "EuskadiBonoDenda 2022".

En el caso de Bizkaia se incluyó también a la Artesanía como sector beneficiario de la campaña.

Colaboración con BBK Fundazioa para el impulso de la digitalización del comercio local.

En septiembre de 2020 se firmó un Protocolo General de Actuación entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Fundación BBK para el apoyo al comercio local de Bizkaia coordinando sus esfuerzos y recursos, en línea con los objetivos previstos en



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustazeko 08. Promoción Económica	09. Eskualde Garapena 09. Desarrollo Comarcal	433.121 Eskualde Garapena 433.121 Desarrollo Comarcal

arabera. Eraldaketa digitalaren esparruko proiektuak jorratzea funtsezko tresna da horretarako.

Helburuen artean, honako hauek daude: tokiko merkataritzaren garapen digitalerako lankidetzan aritzea, gaitasun digitalak hobetzea eta kanal orotarikotasuna sustatzea. Horretarako, tokiko merkataritza babestuko da, produktuen salmenta kateak handitu ditzan, eta, hartara, bere eskaintza bezeroari gehien komeni zaion bitartekoaren arabera egokitu dezan.

Horretarako, BBK fundazioari urte anitzeko laguntza zuzen bat eman zaio 2020, 2021 eta 2022 ekitaldietarako, "BIZKAIA MARKETPLACE" (Eup! plataforma) plataforma sortu eta garatzeko, tokiko merkataritzari lagun dakion digitalizatzeko erronkan.

2022an, jarduera horren jarraipena egiten segitu du.

Artisautza

Artisautza sustatzearen helburua artisautzaren balioa gure gizarteko ongizate kultural, sozial eta ekonomikoaren parte integral gisa indartzea da.

Era berean, Bizkaiko artisautzaren sektorea indartu nahi da, jarduera profesional gisa. Horretarako, artisautzako lanen kalitatea sustatuko da, eta ikuspegi berritzaileak indartu, gaitasun eta negozio eredu berriak garatuz.

Horretarako, Eskualdeko Garapen Zerbitzuak Artisautzaren sektorea antolatzeke lan egiten du, bi tresna hauen bidez:

- Artisautza-erakundearen Erregistroa, artisau-jarduera jarduera zer den eta zer ez den argitu nahi duena, Bizkaiko Foru Aldundiak sektore hori sustatzeko erabiltzen duen ekintzaren ondorioetarako.

materia de apoyo al comercio, siendo un instrumento clave el abordar proyectos enmarcados en la transformación digital.

Entre los objetivos está colaborar para el desarrollo digital del comercio local, así como la mejora de sus habilidades digitales y promover la omnicanalidad, apoyando al comercio local para la ampliación de sus canales de venta de productos, para que éste pueda adaptar su oferta al medio que mejor convenga al cliente.

Para ello se ha concedido a la fundación BBK una ayuda directa plurianual para los ejercicios 2020, 2021 y 2022 para la creación y desarrollo de la plataforma "BIZKAIA MARKETPLACE" (plataforma Eup!), para acompañar al comercio local en el reto de su digitalización.

Durante 2022 se ha continuado con el seguimiento de esta actuación.

Artesanía

La promoción de la artesanía tiene como objetivo elevar la valoración de la artesanía como parte integral del bienestar cultural, social y económico de nuestra sociedad.

Asimismo, se pretende fortalecer el sector de la artesanía de Bizkaia, como actividad profesional, impulsando la calidad de los trabajos artesanos y fomentando enfoques innovadores mediante el desarrollo de nuevas habilidades y modelos de negocio.

Para ello, desde el Servicio de Desarrollo Comarcal se trabaja en la ordenación del sector Artesano mediante 2 instrumentos:

- El Registro de entidades Artesanas que pretende clarificar qué se considera actividad artesana y qué no, a efectos de la acción de Diputación Foral de Bizkaia en la promoción de este sector



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustazeko	09. Eskualde Garapena	433.121 Eskualde Garapena
08. Promoción Económica	09. Desarrollo Comarcal	433.121 Desarrollo Comarcal

- Bizkaiko artisautza-lanbideen bilduma definitzen duen Foru Agindua, Bizkaiko artisautza-sektorea osatzen duten jarduera guztiak mugatzea helburu duena.

Maiatzaren 10eko Artisautza Laguntzako 72/2022 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko artisautzaren sektorea indartu da, 3 jarduera arloren bidez:

- 2. arloa, enpresa artisauek garatutako jarduerak, beren lehiakortasuna indartzeko.
- 3. arloa, artisautzako elkarteek eta tokiko erakundeek sustatutako jarduerak.

1. arloan, aurkeztu diren 92 eskaritik 90 babestu dira.

2. eremuan, aurkeztutako 2 eskaerei eman zaie laguntza.

Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiaren zeharkako lehentasunen inguruan ezarritako batzordeetan hartu da parte (emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna, gazteria, ingurumena, Bizkaia 21), eta horien planteamenduak hartzen dira kontuan jarduerak egiteko, baita laguntzen egitarauak baloratzeko irizpideak eta informazioa biltzeko eta kudeatzeko irizpideak ere.

Hori guztia Zerbitzuari atxikitako pertsonen etengabeko trebakuntzaren aldeko apustua eta agentziekin eta enpresekin harremanak izateko bideak ezartzea ahalbidetzen duten ekintzen garapena ahaztu barik.

- La Orden Foral que define el repertorio de oficios artesanos de Bizkaia que tiene como finalidad delimitar el conjunto de actividades que forman parte del sector artesanal de Bizkaia

Mediante el Decreto Foral 72/2022, de 10 de mayo, de Promoción de la Artesanía, se ha apoyado al sector de la artesanía de Bizkaia con 3 áreas de actuación:

- Área 1, Actuaciones desarrolladas por empresas artesanas para reforzar su competitividad.
- Área 2, Actuaciones impulsadas por entidades locales y asociaciones de artesanía.

Se ha apoyado en el área 1 a 90 de las 92 solicitudes presentadas.

En el área 2 se ha apoyado a las 2 solicitudes presentadas.

Finalmente, se participa en las comisiones establecidas en relación con las prioridades transversales de la Diputación Foral de Bizkaia (igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, juventud, medioambiente, Bizkaia 21) y se tienen en cuenta sus planteamientos en el desarrollo de actividades, de criterios de valoración de programas de ayudas y de recogida y gestión de la información.

Todo ello sin olvidar la apuesta por la formación permanente de las personas adscritas al Servicio y el desarrollo de acciones que permitan establecer canales de comunicación con agencias y empresas.